

«UN FUTURO PARA NUESTRO PASADO» IDAZLANEKO IDEIEI BURUZKO JARRERA INTELEKTUALAK

José María Sánchez Carrión

Maó-ko (Menorka) Institutuko katedraduna eta soziolinguista

Itzultzailea: Mertxe Iñigo

SARRERA

Obra oro autore eta irakurlearen arteko elkarrekintza da. Elkarrekintza hori, autoreari dagokionez, obrak eskatzen duen azalpena emateko esfortzuaren ondorioz ematen da eta irakurleari dagokionez, interpretazioak eskatzen duenaren ondorioz. Bi kasuetan ere, ezagutzan burutzen (edo bertan behera uzten) den topaketa da.

Obra bat ez da, besterik gabe, espresioa, ideiak eta sentimenduak (ideia eta sentimendu batzuen espresioa), haatik, *asmo* baten zehaztapena ere bada. Asmo hori irakastea, dibertiaraztea, erakustea, erabiltzea, komentitzea, etab. izan daiteke. Agian asmoa ez da esplizitoki agerraraziko, baina beti baldintzatzen du obra fokatzeko modua.

Un futuro para nuestro pasado obraren asmoa errealitatearen zentzua berkonpontzea da, hizkuntza minorizatuko hiztunaren esperientzia sujetiboarekin bat egitean, hiztun horrek bere buruaz duen irudi faltsutua apurtu eta bere potentzialitate sortzaileak askatuko dituen beste irudi berri batez ordezkaria dezan.

Behin eta berriz azaldu dugun moduan, prozesuak motibaziotik ezagu-

tzara (eta hemendik erabilerara) joan behar du, «tapoi» izendatzen ditugun erresistentzia gaindituz. Argi dago komunitate minorizatuari bere ezagutza egokia izatea eragozten dion lehen tapoia, diskurtso zaharra osatzen duten ideia eta kontuen sarea dela, eta obraren argudiaketa horren destaponaketa egitera zuzenduko da. Baina beste tapoi bat ere bada, hain zuzen, hainbat eremutan diskurtso berriaren aurrean sortuko den erreakzioak sortarazitakoa, hizkuntza minorizatuko hiztun osoen arteko esperientzia eta ideien lotura ekidin, bitartekaritu edota faltsutzeko, hala, «haustura-tentsioa» ekidin, kontrolatu edota malgutzeko.

Oztopo horiek jadanik gertatzen hasi direnez, nire azkenburuko erantzukizun intelektual gisa hartu dut horiek aurkitu eta aztertzea. Oztopo hauek, nik «jarrera intelektual taponatzaile» izendatuko ditudanak, oraindik nik detektatu ditudanak honako hiru hauek dira:

- Eruditugenesia
- Diskurtsoaren degradazioa
- Bere asmoaren desbirtuazioa

JARRERA INTELEKTUAL TAPONATZAILEAK: 1.- ERUDITUGENESIA

«Eruditugeno» izeneko jarreraren definizioa, bibliografia luzeak argudiaketa edo arrazoiketa ordezkatzeko litzateke. Beti du degradatzaile kutsu bat, pentsamenduaren etxea zita-etxe (?) bihurtzen baitu, eta sarritan harridura sortzen du halako jende ohoretsua horren ohore gutxi duen (eta zilegi ez zaien) asmoaren zerbitzuaren inguruan bilduta ikusteak. Hainbat intelektualen jarrera eruditugenoak ideia hauetan eragin dezaten ekiditeko arrazoiak, honakoa da: berehala beharrezkoa ez den zailtasuna sartzeko beharra izaten dute. Zailtasun honek baino ez du beren handikeria intelektualak asebetetzen *baina, aldi berean, eruditua ez den hiztunarengan oso onorio kaltegarriak eragiten ditu*: konplexuak sortzen dizkio, ulertzen ez duenaren aurrean (aurretiaz ulertezin bihurtu zaiolako) hitz egiteko *bel-durtu* eta isilarazten du, eta bere erreakzioa, nolahi ere, bere buruari uko egitearena da: bai hasiera batean bera sendotzeko ziren ideietatik alde eginez, bai ideia horiek berari «helarazteko» misio sakratua duten intelektualari bere gaineko botere eta autoritate itsua emanez.

Prozedura honen bidez pentsamendu askatzaileenak berak ere dogma erreakzionarioan «berziklatua» izaten bukatzen du.

Intelektual eruditugenoek, horretarako, honako urratsak jarraituko dituzte:

1.- Bide guztiak erabiliko dituzte nik tesiari buruz idazten jarrai dezadan, harik eta «doktrinaren gorputza» sortu arte, zailtasun nahikoa izango duena beraiek izan daitezen horri heldu eta ulertu ahal izateko bakarrak. Nik egin ala ez, beraiek egin egingo dute, eta beraiek egindako «doktrina gorputz» hori, «doktrina berriaren» *testu kanoniko*engisara aurkezten saiatuko dira (beraiek izanik doktrina horren *aita saildu eta zientzilar* nagusi bakarrak).

« "Un futuro para nuestro pasado" obraren asmoa errealitatearen zentzua berkonpontzea da, hizkuntza minorizatuko hiztunaren esperientzia sujetiboarekin bat egitean, hiztun horrek bere buruaz duen irudi faltsutua apurtu eta bere potentzialitate sortzaileak askatuko dituen beste irudi berri batez ordezkatzeko »

«Hainbat intelektualen jarrera eruditugenoak ideia hauetan eragin dezan ekiditeko arrazoa, honakoa da: berehala beharrezkoa ez den zailtasuna sartzeko beharra izaten dute»

2.- Jendeari esan eta jabeaz nahiko diote, obrak sinplea badirudi ere, liburua kontu handiz irakurri beharra dagoela, konplexutasun sotil, erreal eta beharrezkoa duen obra baita. Horren sotila, ezen beraiek baitira obra bereganatu, eta beraz, interpreta dezaketen bakarrak.

3.- Beren buruak eta hiztunak komentzitzen saiatuko dira tesian sinplea dena, hain zuzen ere sinpletasun horren ondorioz, osagabea edo faltsua (edo «inozoa», edo «heldugabea») dela esaten. Baina faltsutasuna non dagoen *argi eta sinpleki* azaldu eta *benetako* ordezkoa eman beharrian, solasaldi korapilotsua eskainiko dute, balizko autoritate bibliografikoen aipamen anitzetan oinarrituz agerian dagoenaren autoritatean beharrian, eta aipamen horiek beharrezkoak emango dute «barbaro ezikasiek» burututako «arrazoiaren» erasoaren aurkako konjuro gisa. Horrela bada, jakinkeria eta barregarrikeriaz betetako testuingurua eraikiz, beraiek bezalakoa ez denarentzat edota beren epai edo eraginaren onurak bilatzen ez dituenarentzat itogarria den adimen-espazioa eratzen dute.

Jarrera intelektual taponatzaile (eta antzu) honen aurkako antidotoa ondorengo baiezen hauetan dago:

1.- *Obra bukaturik dago.* Horren helburuaren baieztapena, gaitasun intelektual minimoa duen edonorentzat (1. BBB mailakoa) ulergarria izatean dago. Nik, jadanik, ez dut horri buruzko beste ezer idatziko. Faltan dagoena ez da esperientziaren teoria gehiago, *teoriaren esperientzia* berria baizik (epe luzean, espiraleango mugimendua baillitza, bere deusezketa ez baizik bere gaindiketa sortuko duelarik). Teoriaren hirugarren zatia, dagoeneko bukatuta, beste biak beren hartzaile legitimoetara iritsita baino ez da abiaraziko.

2.- Obrak ez du adimen-murrizpenik. Bere sinpletasunaren arrazoa, teoria bereganatzeko baldintza onenetan daudenak jende apala baina, aldiz, oso giza esperientzia *aberatsekoak* izatean datza; eta teoria bereganatzeko baldintza okerrenetan daudenak, oso adimen korapilotsua duten eruditua dira, paradoxa badirudi ere, beren giza esperientzia oso mugatua baita (gauzak intelektualki besterik ez dituzte antzematen, eta beraz, «erlieberik» gabeko ezagutza da).

3.- Tesian ordezkatu, aldatu eta ikuskatu beharreko kontzeptuen ordezkari, antzeko sinpletasun eta argitasuna (=erdi-mailako hiztunaren intuizioarekin bat datozenak) duten beste batzuk adieraziko dira. *Gainerako guztia benetako kontzeptuen faltsuketa intelektualak da*, kontzientzia kolektiboa manipulatzeko nahiak sortua (inkontzienteki, normalean).

JARRERA INTELEKTUAL TAPONATZAILEAK: 2.- DEGRADAZIOA

Degradatzea, zerbait bere gradua kentzea da. Hemen, ordea, degradazioa *zerbaiten maila jaistea* da. Diskurtso honen arabera, zeren maila jaitz daiteke? Motibazioarena. Ezagutza berri batek berez kristaltzeko, motibazioak nahikoa maila lortu behar du, harik eta ezagutzaranzko ontzi-

aldaketa eman ahal izan arte. Horregatik, adimen-oztopo bat sortzearekin batera, motibazioak nahikotasun mailara irits daitekeela aurrikusiz (edo behin maila horretara heltzen denean) ontzi motibatzailean zulo bat egin eta «drenajea» eragin daiteke: zulo honek, sortutako motibazioa dagokion mailara heltzea eragotziko luke.

Zertan datza zulo hau? Zein da degradazioaren formulazio intelektualala? Diskurtso oso bat osatugabeko diskurtso bihurtzea litzateke. Eta hau, itxuraz aurkakoak diruditen baina sujetu berean nahiz arrazonamendu berean bat egin dezaketen bi metodoen bidez egin daiteke: a) «zirriborro meritagarria» borondate onez laudatu; b) «halako hutsune nabarmenak» «agertarazten» dituen testua garrazki erasotu.

Garrantzi txikia du iritzi biak bateraezinak izatea, obra berari dagokionez aldi berean adierazita («zirriborroa» bada, normala da hutsuneak izatea; bestalde hutsuneek kritika zorrotza merezi badute, zirriborroa ezin izan daitekeelako da...), zeren eta jokoan dagoena ustearen asmoa baita. Eta asmo degradatzaile batek, kosta ala kosta, *oso garrantzi handiko zerbait falta dela* justifikatu beharra du. *Zer* den esaten ez den zerbait. Onartuz gero, osagarri diren bi arazoirene bidez motibazioaren drenajea sortzen da:

a) hiztunari bere esperientzia propioarekiko mesfidantza sortzen dio.

b) «halako lapsus garrantzitsuaz ohartzeko adinako zolitasuna izan duen» horrekiko autoritate printzipioa sendotu egiten du, eta zuloa tapatuko duen hurrengo burutapena ere beragandik etortzea esperoko da (nahiz eta bera izan zuloa eragin duena!).

Bi kasuetan ere, «haustura-tentsioa» atzeratu egiten du.

Antidotoa, hain zuzen, diskurtso osoa izanik ere, esperientziarekin aldeatzeko *zabalik* dagoela ulertzea da. Diskurtso bat osoa da bere asmoa bete egiten duenean. Diskurtso honen asmoa, komunitate minorizatuaren ekintza mugiaraztea da, eta horretarako beharrezkoak diren elementu guztiak kontuan hartzen ditu, ernal axiometan oinarritzen baita. Degradazioa, beraz, ernal axiomekiko erreakzioa da, eta ernal axiomen indar mugiarazlea anulatzen saiatzen da beldur implizituak sendotuko dituzten hainbat printzipioz baliatuz: desberdintasunarena («ez da diskurtso osoa, inozoki infantila delako edo zaharren antzera burugabea»), autoritatearena («baina *neuk/geuk* osatzen jakingo genuke») eta diskordiarena («zer espero daiteke *gizajo horrengandik*»).

Puntu honi buruz esan behar da, ordea, diskurtso hau osoa dela bere asmoari dagokionez (beharraren axioma). Bere autoritatea esperientzia kolektiboan oinarritzen du, beste inon ez (arduraren axioma). Eta bere espresio, eraikuntza teoriko eta sentimenduetan, giza aurrerakuntzaren norabideari jarraitzen dio (harmoniarene axioma).

«Obra bukaturik dago. Horren helburuaren baieztapena, gaitasun intelektual minimoa duen edonorentzat (1. BBB mailakoa) ulergarria izatean dago. Nik, jadanik, ez dut horri buruzko beste ezer idatziko. Faltan dagoena ez da esperientziaren teoria gehiago, teoriaren esperientzia berria baizik. Teoriaren hirugarren zatia, dagoeneko bukatuta, beste biak beren hartzaile legitimoetara iritsita baino ez da abiaraziko»

«Esan behar da, ordea, diskurtso hau osoa dela bere asmoari dagokionean (beharraren axioma). Bere autoritatea esperientzia kolektiboan oinarritzen du, beste inon ez (arduraren axioma). Eta bere espresio, eraikuntza teoriko eta sentimenduetan, giza aurrerakuntzaren norabideari jarraitzen dio (harmoniaren axioma)»

JARRERA INTELEKTUAL TAPONATZAILEAK: 3.- DESBIRTUAZIOA

Desbirtuazioa zerbaiti bere *bertute* galaraztea da. Gauza bakoitzak bere bertute propioa du. Harriaren bertutea bere iraunkortasuna da; arrosaren bertutea bere lurrina; marrubiaren bertutea zaporea; begiaren bertutea ikusmena. Gauza bakoitzak zerbaiterako balio du, oso baten zatia da eta bertan bere tokia du. Munduan dena harri edo arrosa balitz, edo marrubi edo begi, benetan ezin itsusiagoa izango litzateke. Mundu honen edertasuna, hain zuzen, osagai anitz hauek lurrean bizitza organikoa sortzeko elkarrekin batu eta elkarren artean erlazionatzen diren harmoniak eta aniztasunak berak emana da.

Zer da, beraz, desbirtuatzea? Lurrinik ez duela-eta, harria erasotzea da; begia zigortzea, zaporerik ez duelako; arrosa, iraunkorra ez delako; marrubia, ikusmenik ez duelako.

Osagai batek beste osagai edo osoari dagozkion ezaugarri edo berezitasunak eduki ditzala nahi izatea da eta, jakina, osagai horren bertutea —bere funtzioa eta bere zentzua— arbuatzea.

Arrosa osorik dago bere funtzioa betetzeko, bere bertutea burutzeko elementu guztien jabe denean. Baina bertute hau bere gainetik dagoen beste zerbaiten arabera da. Hori dela-eta, arrosaren osotasuna ez da mugagabeki irauteko gai izatea, arranoaren begia edukitzea edota marrubiaren zaporea izatea.

Gauza bera gertatzen da ezagutzaren arloan. Obra oro da oso baten espresio zatitua, (eta oso hori dinamikoa da, bilakaeran dago): Giza Ezagutza. Obra bakar batek ere ez du osotasunaren ezaugarri guztiak bereganatzeko aukera, baina beraietako bakoitza *osoa* izango da, sistema global horren barruan bere bertutea gauzatzen badu, munduaren zati baten azalpena emateko funtzioa betetzen badu eta mundu horri zentzua emateko funtzio globalean parte hartzen badu.

Pentsa dezagun zeinen zentzugabea litzatekeen Marx-en «Kapitala» erasotzea, Lorenz-en eraldaketa formulen aipamenik egiten ez duelako; Einstein iraintzea, bere teorian Mendeleieff-en gorputz bakunen koadroarentzako tokia bilatzeaz ahaztu delako; Tazito baztertzea idazkera txinatarri buruz deus ez jakiteagatik.

Eta hala ere, gezur honen ustelkeriatik bertatik ernaldutako kritika mota bat dago: Koran-a ezesten du paradisuaren deskribapenean ez delako Butragueño-ren golen aipamen zehatza egiten; Chomsky-ri aurpegiratzen dio bere gramatika tradizionala burutzean alde batera utzi izana Malinowsky-k xehehasun osoz deskribaturiko tobriandarren ohitura sexualak, eta Platon-i iseka egiten dio «Errepublika» lanean PSOEn 82ko hauteskunde programaren aipamen espresua egiteaz ahaztu izanagatik.

Jakina, kritika mota honetan normalena izango litzateke deskreditatzailea bera deskreditatua izatea. Baina hemen, hobeto uler dezazuen maila

barregarrietan adierazi ditugun adibide hauek, askoz ere eremu apalagoetan burutu daitezke, askoz ere zailagoa izanik irakurle arruntarentzat horietaz jabetzea, ezin ahantz baitezakegu, besteak beste, irakurleak ez duela astirik izaten irakurtzen duena aztertzeko eta urrunketa kritikoa egiteko.

Hainbat obraren bertutea sormen-obrak izatean dago: lehen aldiz adierazten dute ordura arte jendeak bereganatu gabe zuen ezagutza. Beste obra batzuen bertutea irudimen-obrak izatean dago: sekula jazo gabeko gertakariak asmatzen dituzte jendearen aisialdia atseginez bete nahi hutsarekin. Dibulgazio-lanak izatea da beste obra batzuen bertutea: ezaupide espezifikoak jartzen dute irakurle neofitoaren esku.

Dibulgazio zientifikoko obra desbirtua daiteke, pentsamendu-orijinaltasunik ez duela argudiatuz; sormen-obrari «estilo didaktiko eskasa» izatea kritika dakiok; edota Camus gaitzets daiteke bere Kaligula-ri egotzitako esaldiak ez dituelako historikoki dokumentatzen orriaren oinean oharra jarrita. Eta benetako makurkeria kritikoa izaten jarraituko du, gero eta sotilagoa izan, are oharkabeago pasa ahal izango den desbirtuazioa. Bestela litzateke autoreak jatorrizko ikerketa gisa eman nahi izatea hedaketa-lan hutsa besterik ez dena. Bide batez, esan dezagun hedaketak ez duela zertan sormen-lanketak berak baino bertute *gutxiago* adierazi behar; besterik gabe, haren desberdina eta osagarria da. Bestelakoa da ere autore jakin batek bere buruari eskatu nahi izatea jatorrizko ikerketa bati azalpen erakargarri eta didaktikoa emateko esfortzua —ez gai, ez estilo mota guztien eskura ez badago ere—. Beti ere argi gera dadila zertarakoa, gauzaren helburua berarekin duen harremana dela bere bertutea juzkatzeko modua.

Teoria honen bertutea, norbanakoen, gizarte-taldeen eta hizkuntz komunitateen jarraera linguistikoa arautzen duten legeak modu didaktikoan eta, era berean, erabateko orijinaltasunez azaltzean dago. Gezur nahi hutsa da teoria erasotzea bertan diskurtso linguistikoren analisi historikorik egiten ez delako. Mendel-en legeak ez dira eraiki esperimendu genetikoen analisi historikoetan oinarrituta: beren oinarri bakar-bakarra, errealtatearen behaketa inpartzial eta zorrotza da, esperimendazio anitzaren bidez frogatuta. Mendelen legeak genetikaren historiatik at formula daitezke guztiz. Baina ezingo litzateke genetikaren historia egin Mendelen legeak espreski aipatu gabe, hori baita *bertutea* «approach» mota baten eta bestearen koalitatea.

Obra honen bertutea, beraz, eta hain zuzen ere, soziologia linguistikoko Mendelen legeak izatean dago, eta hortaz, diskurtsoaren historiatik at egin daiteke erabat: baina aurrerantzean egiten den diskurtso linguistikoei buruzko historia bat bera ere ezingo da egin, izen hori mereziko badu, sistema interpretatzaile honen existentzia, ekarpena eta aurkikuntzak alde batera utzita.

«Obra honen bertutea, beraz, eta hain zuzen ere, soziologia linguistikoko Mendelen legeak izatean dago, eta hortaz, diskurtsoaren historiatik at egin daiteke erabat: baina aurrerantzean egiten den diskurtso linguistikoei buruzko historia bat bera ere ezingo da egin, izen hori mereziko badu, sistema interpretatzaile honen existentzia, ekarpena eta aurkikuntzak alde batera utzita»